

GIPUZKOAKO OZTOPOAK IRAGAZKORTZEKO PLAN ZUZENDARIA 2020

2025. urteko aurrerapen txostena

OZTOPOAK IRAGAZKORTZEKO 2020/35 PLAN ZUZENDARIAN ezarritako konpromisoak jarraituz, 2025ean, Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak iragazkortzeko obrak egin ditu arrain faunarentzat, lurraldeko 8 udalerritako 11 presa txikitan. Zerrenda osoa eta bakoitzaren ezaugarri garrantzitsuenak taula honetan ageri dira:

Izena	Ibaia	Arroa	Altuera (m)	Udalerria	Konponbidea
Bentaundi	Oria	Oria	0.4	Tolosa	Arrapala
Illarragorri (3. Fasea)	Altsolarats	Urola	8	Aia	Eraistea
Errotaberri (Errotatxiki)	Salubita	Oria	1.1	Tolosa	Eraistea
Errotazar	Salubita	Oria	0.8	Tolosa	Eraistea
Itavex	Oñati	Deba	1.2	Oñati/Bergara	Eraistea
Granadaerreka	Altsolarats	Urola	5.5	Aia/Zestoa	Eraistea
Etxezarreta 1 (3. Fasea)	Oria	Oria	2.67	Legorreta	Eraistea
C.H Olea	Deba	Deba	2	Soraluze	Eraistea
Zuloaga	Deba	Deba	0.65	Soraluze	Eraistea
C.H. Bergara	Deba	Deba	3.6	Bergara	Eraistea
Barrena errota	Deba	Deba	1.8	Arrasate/Bergara	Eraistea

Presa guztiak batera hartuta ia 28 metroko altuera dute; garaienak 8 metroko altuera du (Illarragorri presa), eta baxuenak, berriz, 0,4 metrokoa (Oria ibaian, Tolosan, dagoen Bentaundi presa txikia). Oztopoen batez besteko altuera 2,5 metrokoa izan da, eta iragazkortzeko hartutako neurriak izan dira 10 presa eraistea eta arrapala bat eraikitzea, zehazki Bentaundiko presan.

Jarduera horiei dagokienez, honako datu hauek nabarmendu behar dira:

- Illarragorri presaren eta Etxezarreta 1 presa txikiaren iragazkortasun obrak 2023an hasi ziren, eta bi eraspenak 3 fase bereizitan egin ziren, 3 urtetan zehar. Izan ere, Illarragorriren kasuan, presak altuera handia du (8 m), eta Etxezarreta 1en kasuan,**



zailtasun teknikoak egon dira, ertzetan azpiegitura garrantzitsuak daudelako, hala nola Oria Erdialdeko HUA, eskuinaldean, eta GI-2131 errepidea (lehengo N-I), ezker aldean.

Bi kasuetan, 2025ean amaitu dira oztopoak eraisteko lanak.

- *Etxezarreta 1 eta Granadaerreka presa txikiak NATURA2000 Sarearen barruko naturagune babestuen barruan daude, eta naturagune horien kontserbazio eskakizunei erantzuteko eraitsi behar izan dira (Oria Garaiko eta Pagoetako Kontserbazio Bereziko Eremuak, hurrenez hurren).*
- *Olea presa txikiari dagokionez, esan behar da garai batean burdinola baterako erabiltzen zela jasota badago ere, egungo presa dagoeneko desagertuta dagoen Alberdi Hermanos fabrikari lotuta egon dela. Fabrika XIX. mendearen erdialdean jarri zen abian; mahai-tresnak egiten zituen eta XX. mendearen amaierara arte egon zen martxan. Duela urte batzuk, presaren maila (4 metro) beheratu egin zen, horrela, ondoko hiri ingurune osoan uholde arriskua murrizteko.*

Kultura herentzia aberats hori dela eta, kontu handiz egin behar izan dira proiektatutako iragazkortasun lanak, eta espezializatutako teknikariak kontratatatu behar izan dira, aztarna arkeologikorik agertuz gero, identifikatu ditzaten.

- *Salubita eta Oñati ibaietan egindako jarduketak izan dira Oria eta Deba ibaien adar garrantzitsu horietan, hurrenez hurren, egin diren lehen iragazkortze lanak. Datozen urteetan beste toki batzuetara zabaldu nahi dira lan horiek.*

Finantzei dagokionez, Obra Hidraulikoetako Zuzendaritzak, 2025ean, 820.000 euro inbertitu ditu guztira jarduketa horietan bere aurrekontutik, nahiz eta 600.000 euro baino gehixeagoko laguntza jaso du Europako funtsetatik, ibaiak lehengoratzeko Europako hiru proiektutan parte hartu baitu, hala nola

- *MERLIN proiektuan, Europar Batasuneko HORIZON programaren barruan;*
- *KANTAUERIBAI proiektuan, Europar Batasuneko LIFE programaren barruan; eta*
- *Europar Batasuneko EGEF Programa garatzeko funtsetan.*

Horrek guztiak agirian uzten duen Europako erakundeek garrantzi handia ematen dietela Gipuzkoan ibaiak lehengoratzeko egiten ari garen ekimen horiei.



Jarduketa horien ondorioz, arrain faunarentzat iragazkor bihurtu dira guztira ibai ibilguen 15,7 kilometro, Oria, Salubita, Altzolarats, Deba eta Oñati ibaietan. Nabarmentzekoa da, halaber, lehengoratutako ibai habitataren azalera, 8,3 ha-koa izan dela. Ibai tarte horiek etengabeko ur bilduak izatetik ibai dinamika naturalagoa izatera igaro dira, korrante eremuak ur lasterrekin eta putzuekin tartekatzen direlarik.

Adierazle horien emaitza xehatuak taula honetan kontsulta daitezke:

	Iragazkortutako luzera (Km)	Lehengoratutako azalera (Ha)
Guztira 2025	15.7	8.3
<i>Oria</i>	4.9	2.0
<i>Salubita</i>	0.3	1.8
<i>Altsolaras</i>	3.7	1.1
<i>Deba</i>	5.9	1.5
<i>Oñati</i>	0.9	1.1

Amaitzeko, txosten honekin batera doan eranskinean, hemen aipatutako jarduera guztien argazki erreportaje txiki bat dago.

Donostia, 2025eko abenduaren 1a.



ARGAZKI ERANSKINA

Bentaundi (Tolosa):

Lehenago



Ondoren




Illaragorri (Aia):

Lehenago



Ondoren



Errotaberri (Tolosa):

Lehenago



Ondoren



Errotazar (Tolosa):

Lehenago



Ondoren



Itavex (Oñati eta Bergara)

Lehenago



Ondoren



Granadaerreka (Aia eta Zestoa)

Lehenago




Ondoren



Etxezarreta 1. (Legorreta):

Lehenago



Ondoren



CH Olea (Soraluze):

Lehenago



Ondoren



Zuloaga (Soraluze):

Lehenago



Ondoren



CH Bergara (Bergara):

Lehenago



Ondoren



Barrena errota (Arrasate eta Bergara):

Lehenago



Ondoren

